


ASTIÑENE baserria


Egipton bezalako piramideak ez ditugula esatea gustatzen zait, gure benetako ondarea Euskal Herriko gure Gipuzkoan xumea dela, eta horiek baserriak direla. Horiek zaintzeko hitz onak bai, baina utzikeria da jaun eta jabe.



Egiatik Loiola aldera abiatzen bagara, Piñuetako Aldapa jaitsi eta ibaiertzerara heltzean, etxe zahar batekin egingo dugu topo: Astiñenea da, izen bereko zubiaren ondoan ibaiari begira, zur eta adreiluzko aurrealdea duen etxe polit hori. Egiako Kostan dago baserria, baina zertan gelditu zaigu Egiako Kosta xarmant hura? Hain desitxuratua dago egun Urumea ingurua... Oroitzapen haiek argazki zahar batzuetan besterik ez dira ageri.

Badira hogeï urte baino gehiago Astiñeneren egoera tamalgarria salatu zela, eta hain zuzen daukan balioa paregabea izanik ondarearen katalogoetan sartu zen, bai Aldundian, baita Donostiako Udalean ere. Babestua gelditu zen, non eta... paperean bakarrik

ASTIÑENE baserriaren 2012ko ikuspegia



Ordutik horrela goaz, beti atzera, eta etxea erortzen. 2018an Donostiako Udalak etxea erostea aurreikusi zuen, baina ez zuen aurrera egin. Diru kopuru bat ere ezarri zuen: 60.000 euro, baina ez zuen aurrera egin. Inguruko sasien garbiketa ere egin zen, teilatuan toldo bat jarri, baina jabeekin adostasun faltagatik edo, bertan behera gelditu zen dena.

Sentsibiltate ezarengatik ez badugu gure ondarea zaintzen, zer utzi behar diegu gure ondorengoei?

Baserria oso zaharra da: 1624. urtean Hondarribiako Zuloaga familia aristokrataren jabegora pasa zen ezkontza-doteaz. Gaur egun ere delako familia horren (Conde de Torrealta) ondorengoak dira jabeak. 1652ko testamentu batean, Maria Miguel de Olaso ageri da, Miguel de Aztinaren alarguna zena.

1676. urtean Jorge de Arangibelen emazte Teresa de Aztinak jarri zuen dote bezala agertzen da, eta badirudi Egiako Toledo (gaur Tolaregoia) etxearen sagar-dolarea zela. Pentsa dezakegu sagarra Astiñenen jo eta barriketan, gabarran, errioz Santa Katalinako portura eramaten zela. Etxea hondatua gelditu zen aurreneko gerra karlistan (1833-1840). Eraberritu zen eta ondorengo da gaur ageri duen aurrealdea.

Barneko egitura hiru habealditan banatuta dago, eta habedun-dolare apartak osatzen du. Sagarra jotzeko dolarea izateaz gain, jarduera horrekin lotutako beste interes elementu ugari ere baditu, esaterako, txanelak eta gabarrak igotzeko arrapala, zurgindegia eta abar.

Ziurtatu dezakegu Astiñene dela gaur egun, ez Urumean bakarrik, baita Gipuzkoa osoan ere, geratzen zaigun mota honetako eraikin bakarra eta azkena. Donostia mailan, baita Urumea bailara osoan ere, kultura interes aparteko etxea da, Patxillardegirekin batera, bai balio historiko-arkitektonikoaren ikuspegitik, bai errio baztarreko etnografia eta paisaiaren ikuspuntutik. Altxor hori galtzea gure gizarte eta herriarentzat lotsagarri eta barkaezina litzateke.

AMETS BAT: zer iruditzen zaizue Astiñene berreskuratuta eta duela urte batzuetatik hona ospatzen den Sagardo Apurua festan sartuko bagenu?

Josu Tellabide



ASTIÑENE gaur egun



Didier Petit De Meurvilleren margolana (1857- 1872)



Dolare-aska azpiko sumilak



2012an aurrealdea